Ebazpena, 2022ko uztailaren 20koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zuzendari beraren 2022ko otsailaren 3ko Ebazpena aldatzen duena, zeinaren bidez lehiaketa-faseko puntuazio totalak argitara eman ziren (Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitutako Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduretan)

Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduretarako deia egin zen, baita espezialitate berriak eskuratzeko ere. Aginduaren 8.7 oinarrian zehaztutakoarekin bat etorriz, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko otsailaren 3ko Ebazpenaren bidez, lehiaketa-faseko puntuazio totalak argitaratu ziren.

Olatz Hernández Michelena andreak –Hezkuntzako Sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran izangaiak– gorako errekurtsoa jarri zuen Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko otsailaren 14ko Ebazpenaren (EHAA, 2022-02-23koa) kontra; ebazpen horren bidez, argitara eman ziren hautatutako izangaien behin betiko zerrendak.

Hezkuntza sailburuaren 2022ko ekainaren 27ko Aginduaren bidez aintzat hartu da jarritako gorako errekurtsoa, ondorengo terminoetan: Olatz Hernández Michelena andreari, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko Estetika espezialitatean izangaia, txanda librean, antzeman zaio 0,500 puntu deialdiaren I. Eranskineko (merezimenduen baremoa) III.2 Etengabeko prestakuntza atalean; ondorioz, lehiaketa-aldian puntuazioa igotzen du eta 6,433 puntu lortzen ditu.

Beraz,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.– Aldatzea Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko otsailaren 3ko Ebazpena; haren bidez, argitara eman ziren lehiaketa-faseko puntuazio totalak (Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitutako Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduretan). Aldaketa ondoren aipatzen den terminoetan da:

Olatz Hernández Michelena andreari, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko Estetika espezialitatean izangaia, txanda librean, honako hau dagokio:

III.2 atala: 1,800 puntu
III. atala: 1,800 puntu
Lehiaketa-aldiko puntuazio totala: 6,433 puntu

Bigarrena.– Ebazpen hau ikusgai jarriko da Hezkuntza Sailaren web orrian: http://www.irakasle.eus eta http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 20a
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO